



Martxoaren 8ko Errenteriako Udalaren adierazpen instituzionala, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, irmoki berresten dugu emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorrarekin dugun konpromisoa. Printzipio demokratiko hori ukaezina da, eta gizarte bidezko, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Gaur, ahotsa goratzen dugu, tinko, berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko, berdintasunaren diskurtsoa zokoratzen eta zalantzan jartzen ari baita komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu kezkagarrian, giza harremanetarako eguneroko espazioetan. Eta honek eragin handia du gizartean, oro har, eta bereziki, gazteengan.

Desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria ukatzen dituzten jarrerak gaitzesten ditugu, nabarmen hondatzen baitute berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko aldarrikapen feministaren pertzepzioa.

Berdintasunak aurrerapausoak egin dituenetan halaxe gertatu da historian zehar, eta gaur egun ere goraldi betean datorkigu mugimendu antifeminista bat, diskurtso erreakzionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek helburu dute oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia bera deslegitimatzea. Diskurtso antifeministak erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua dira, eta, beraz, ezin zaie eztabaida publikoan lekurik eman beste edozein iritziren pare.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: giza eskubide unibertsala da, hala aitortua eta babestua. Hamarkadaz hamarkada kolektiboki borrokatuz eta ekinez irabazi dute eskubide hori emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek; gogotik egin dute lan, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztiontzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzeko dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizarte bat aldarrikatzen dugu; gizarte bat, indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen. Berdintasuna defendatzeak esan nahi du aurre egin behar diegula, aktiboki, menderatze patriarkala eta soziala erreproduzitzen duten diskurtso eta praktika horiei. Ozen eta garbi esango dugu: berdintasunik gabe ez dago erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dago guztiontzako askatasunik.

Martxoaren 8an, Errenteriako Udalak dei egiten die herritar guztiei eta erakunde guztiei, irmo jarrai dezagun, batuta eta elkartuta, irabazi ditugun eskubideak defendatzen eta aurrera egiten, atzerapausorik gabe, benetako berdintasun eraginkorrerantz.



Horregatik, Errenteriako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Errenteriako talde feministekin eta emakume elkarteekin etengabeko komunikazioan jardutea, diskurtso misogino eta antifeministei aurre egiten jarraitzeko.
- Berdintasun politikei zentraltasuna eta behar adina baliabide ematea, gure udalerrian berdintasun politikek aurrera egiten jarrai dezaten, aldian behingo ebaluazioa sustatuz eraginkortasuna eta emaitzak bermatzeko.
- Gizarte bidezko eta berdintasunezko bat lortzeko mugimendu feministak egin duen eta egiten duen ekarpena eta lana aitortzea
- Hezkuntza formalean eta ez-formalean esku hartzen jarraitzea, jarrera antifeministak eta maskulinitate toxikoak desmuntatzeko.
- Barne berdintasun planean jasota dagoen moduan, berdintasunari buruzko trebakuntzak sustatzen jarraitzea.
- Emakumeen ahalduntzea sustatzen jarraitzea, besteak beste, Eskola feministaren bidez, eta emakumeak gizartearen, kulturaren eta ekonomiaren eremu guztietan parte har dezaten sustatuz.

Bukatzeko, Errenteriako Udalak herritar guztiei dei egiten die mugimendu feministak martxoaren 8an, 12:30ean, Herriko plazatik abiatuta antolatu duen manifestazioan parte har dezaten.

ERREENTERIAKO UDALA



**AYUNTAMIENTO DE
ERRETERIA**